

HAZI FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación Hazi Fundazioa

IFK

G48986137

Izaera

Sektore publikoko fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Fundazioa Eusko Jauriaritzako Nekazaritza eta Arrantza eta Elikadura Sailak eratu zuen (egungo Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak), Fundación Kalitatea Fundazioa izenarekin, 1998ko abuztuaren 6an emandako eskritura publiko bidez, eta honako hau oinarri hartuta inskribatu zen Fundazioen Erregistroan: [AGINDUA, 1999ko uztailaren 20koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, «Fundación Kalitatea Fundazioa» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen duena.](#)

Geroago, 2011ko abenduaren 28an, fundazioaren Patronatuak estatutuetako zenbait artikulua aldatzea erabaki zuen; besteak beste, fundazioaren izena bera aldatu zuten, eta Fundación Hazi Fundazioa izena hartu zuen. Aldaketa horiek agindu honek onartu zituen: [AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 17koa, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuarena, Fundación Hazi Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.](#)

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

7320 Merkatu azterlanak eta iritzi publikoari buruzko inkestak egitea.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren Patronatua 2012ko ekainaren 14an bilduta, fundazioaren estatutuen artikulua batzuk aldatzea onartu zuten, besteak beste, erakundearen sorrerako xedea eta helburua, hori guztia Hazi Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioa, S.A. eta Hazi Kontsultoria, S.A. erakundeen jardura jakin batzuk fundazioan bertan txertatzeko asmoaren barruan. Aldaketa horiek agindu honek onartu zituen: [AGINDUA, 2012ko uztailaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuarena, Fundación Hazi fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onesteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.](#)

Aldaketa horren ondoren, fundazioak bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea du xede eta helburu. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zaindu.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Eskualde Administraziooko Herri Administrazioak

Fundazio-zuzkidura

1.670.813 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: % 100

Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira, ekitaldiko urteko kontuak egitean, Patronatuko kideak:

Izena:

Bittor Oroz Izagirre jauna
Asier Arrese Zabala jauna
Peli Manterola Arteta jauna
Leandro Azkue Múgica jauna
Eduardo Aguinaco López de Suso jauna
Elena Gutiérrez Pérez de Notario andrea
José Luis Fresno Santamaría jauna
Emeterio Urresti Isasti jauna
Eteban Atxa Calvo jauna
Irene Pardo Portillo andrea
Jon Uriguen Ansola jauna
Francisco De Borja Monje Frías jauna
Inés Baigorri Uribe andrea
Román Bengoa Larrañaga jauna
José Antonio Zabala Egurrola jauna

Honen proposamenez izendatua:

EAEko Administrazio Orokorra (presidentea).
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
EAEko Administrazio Orokorra.
Bizkaiko Foru Aldundia.
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Arabako Foru Aldundia.
Foru Aldundiak (EAEko Administrazio Orokorren ordezkartzan)
Foru Aldundiak (EAEko Administrazio Orokorren ordezkartzan)
Foru Aldundiak (EAEko Administrazio Orokorren ordezkartzan)

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 60,00

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	13.734.563 €
Ondare garbia	9.521.086 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	5.321.363 €
Batez besteko langile-kopurua	180,05

Sozietatearen helbidea

Muntsaratz 17 A - 48220 Abadiño (Bizkaia)

Web gunea

www.hazi.eus